



## ESKOLA KIROLA GIPIZKOAN

Nekane Jauregi

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako Lan Mahaia

Helbide elektronikoa: [njauregi@gipuzkoa.net](mailto:njauregi@gipuzkoa.net)

### 1. ESKOLA KIROLAREN ANTOLAKETA

Gipuzkoan eskola kirolak aldaketa nabarmenak izan ditu 1989. urtetik hona. Hiru ezaugarri nagusi ditu eskola kirolaren ereduak:

- eskola kirolari buruzko **arautegi berezia**
- **ekintzen eskaintza zabala**, bai modalitate kopuruari dagokionean, bai kirola egiteko moduari dagokionean. Helburu nagusia ikasle guztiek, salbuespenik gabe, kirola egiteko aukera izatea da.
- eskola kirolean parte hartzen duten eragileak ondo identifikatzen dituen **antolakuntza**, eragile bakoitzari zeregin osagarriak esleituz.

#### 1.1 Eskola kirolari buruzko arautegia

- Euskadiko eskola kirola dekretu hauek arautzen dute: 160/1990 eta 337/1994 Dekretuek eta Kirolaren 14/1998 Legeak.
- Araudi horietan esaten da eskola kirola ikasleek, derrigorrezko eskolatz e aldian, eskola orduz kanpo egiten duten kirol jarduera antolatua dela.

- Era berean, eskola kirolaren funtzioak eta ezaugarriak ezartzen dituzte, eta garbi adierazten dute eskola kirolak kirol aniztasuna bultzatu behar duela eta ez dela lehiaketara bakarrik bideratu behar.
- Gainera, eskola kirolean parte hartzen duten eragileen funtzioak zehazten dituzte eta, horrezaz gain, zehazten dira zein diren foru aldundien eskumenak eskola kirolaren programak garatzeko, zein federazioen papera jardueren laguntza teknikoa emateko, eta azkenik, ikastetxeen zeregina zein den eskola kirolaren programak exekutatzeko, kirol klubekin edo bestelako entitateekin eta udalekin elkarlanean, beti ere foru aldundiekin koordinatuz.

## 1.2 Jardueren eskaintza

Jardueren eskaintzan hiru ibilbide bereizi behar dira:

- Parte hartzea: *eskola adineko ikasle guztiei zuzendua, salbuespenik gabe. Benjamin mailatik edo lehen hezkuntzako 3. mailatik aurrera.*
- Errendimendua: *eskola adineko ikasle kopuru mugatuari zuzendua. Alebin mailako 2. urtetik edo lehen hezkuntzako 6. mailatik aurrera.*
- Talentu eta etorkizuneko kirolariak identifikatzea: *eskola adineko ikasle kopuru oso murriztuari erreserbatua. Alebin mailako 2. urte-tik edo lehen hezkuntzako 6. mailatik aurrera.*

Ibilbide hauetako bakoitzean, lehiaketara zuzendutako jarduerak eta kirol irakaskuntzara zuzendutakoak eskaintzen dira.

## 1.3 Antolakuntza

- Eskola Kirolaren Programak jasotzen dituen jardueren antolakuntzak **kirol eragile** hauen guztien parte hartzea eskatzen du: udalak, ikastetxeak, kirol federazioak eta beren kirol klubak.
- Jardueren laguntza teknikoa emateko Foru Aldundiak elkarlaneko hitzarmenak sinatzen ditu kirol federazio batzuekin, eta bertan zehazten dira zein jarduera antolatuko diren modalitate eta diziplina bakoitzean.
- Eskola kirolak berezkoak dituen formazio helburuak bermatzeko egiturarik egokienak **ikastetxeak** dira, ikastetxeak baitira ikasleen prestakuntza edo formazio integralaren arduradun nagusiak.
- Ikastetxeek beren ikasleentzako eskola kirola behar bezala kudeatzeko, Foru Aldundiak elkarlaneko hitzarmenak sinatzen ditu Gipuzkoako **udalekin**. Helburua da udalek eskola kirola kudeatzeko egiturak bultzatzea bere herriko ikastetxeetan; horrezaz gain, biga-

---

### **Hizkuntza irizpideak:**

*Foru Aldundiak udalekin, udalek ikastetxeekin eta bere kasuan ikastetxeek kirol klubekin elkarlanerako hitzarmenak sinatzen dituzte eskola kirolaren helburuak lortzeko. Hitzarmen eredu horietan txertatuak dauden hizkuntza irizpide orokorrak ondorengoak dira:*

---

*- Eskola kiroleko teknikari, irakasle edota monitoreak elebidunak izatea, gutxienez eskola kiroleko adinean udalerrri bakoitzean B eta D ikastereduek duten proportzio berean.*

rrren mailako egiturak sortu behar dituzte, herri mailan edo eskualde mailan.

- Modu horretan, herri edo eskualde bakoitzak bere **autonomia** maila izango du bere jardueren eskaintza prestatzeko garaian, baita antolakuntza modu bat edo beste aukeratzeko ere.

Horren guztiaren ondorioz, alde nabarmenak daude eskualde bate-tik bestera eskola kirolaren antolakuntzan, batez ere faktore hauek eraginda:

- **Parte hartzen duten eragileen inplikazioa eta bultzatzen dituzten jarduera motak oso diferenteak dira.** Udalen kasuan, esate baterako, badaude eskola kirolaren antolakuntzan bete-betean esku hartzen dutenak, baina baita herriko kirol antola-kuntzan eragin gutxi edo batere eraginik ez dutenak ere.

- **Kokapen geografikoak** ondorio zuzena du ekintzen eskaint-zan. Kostaldeko eskualdeek, esate baterako, barnealdean nekez antola daitezkeen uretako kirolak antolatu ohi dituzte: arraun-keta, piraguismoa, bela...

- Bukatzeko, **lurralde mailako egitura** bat ere badago, Eskola Kiro-laren Lurralde Kontseilua hain zuzen. Ikastetxeek, federazioek, uda-lek eta Foru Aldundiak berak osatzen dute kontseilu hori.

## **1.4 Hizkuntza irizpideak**

Foru Aldundiak udalekin, udalek ikastetxeekin eta bere kasuan ikastetxe-ek kirol klubekin elkarlanerako hitzarmenak sinatzen dituzte eskola kiro-laren helburuak lortzeko. Hitzarmen eredu horietan txertatuak dauden hizkuntza irizpide orokorrak ondorengoak dira:

- Eskola kiroleko teknikari, irakasle edota monitoreak elebidu-nak izatea, gutxienez eskola kiroleko adinean udalerrri bakoitze-an B eta D ikastereduek duten proportzio berean.

- Ikastetxea, eskola kiroleko eragile guztiak elebidunak izan dai-tezen saiatzea eta B eta D ikastereduetako eskola umeek eskola kirola euskaraz egin dezaten ahalegintzea.

- Eskola kiroleko teknikari eta monitoreentzat udalek antolatu-tako prestakuntza saioetan, euskararen erabilera lehenestea.

## 2. KIROLETAKO LAN MAHAIA ETA ESKOLA KIROLA: ARRAZOIAK ETA EKINTZAK

### 2.1 Arrazoiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak SIADECOn laguntzarekin koordinatzen duen kiroleko lan mahaian Gipuzkoako eskualdeetako udal kirol eta euskara teknikariak biltzen dira. Lan mahai horren egiteko nagusia, kirolean euskara bultzatzeko Gipuzkoan bideratzen diren programak elkartu eta koordinatzea da eta eskola kirola izan da hain zuzen ere, orain artean ateziorik gehien eskaini zaion kirol arloa. Horretarako arrazoiak hainbat:

1. Gaitasuna eta erabileraren arteko aldea: Gipuzkoa mailan eskola kirolean parte hartzen duten ikasle gehien gehienak D eta B irakastereduetakoak izanik, eskola kiroleko hartzaileen hizkuntza gaitasunak euskararen erabilera nahiko altua izateko aukerak eman behar litzuzkeela ikusi zen. Hori horrela, eskola kirolean hezitzaile, entrenatzaile eta monitore lanak egiten dituztenekin lan egiteak berebiziko garrantzia zuela ikusi zen.
2. Udal eta ikastetxeen arteko elkarlana bideragarria ikusten zen: udaletako kirol zerbitzuek eskola kirolaren koordinaziorako ikastetxeekin lan egiten dute eta Gipuzkoako euskara zerbitzu askok ere ikastetxeekin elkarlanean aritzeko sareak zabalduak dauzkate.
3. Eskola kiroleko harremanetan, eskolaz kanpokoak diren hartu eman ez formalagoetan eskola umeek euskara erabiltzearen garrantzia: kirolak hizkera ez formala gazteen artean erabili, zabaldu, eza-gutu eta gozatzeko aukerak eskaintzen ditu. Hizkuntzaren erregistro formala eta ez formala menderatuz, euskara eskola umeen artean aberastu eta indartzeko espazio estrategikoa kontsideratu izan da eskola kirola.

### 2.2 Ekintzak

Eskola kirola euskalduntzeko ahaleginean Gipuzkoa mailan jorratu eta bideratu diren ekintza nagusiak ondorengoak izan dira:

1. Eskola kirolaren alorrean, Aldundi, Udal, ikastetxe eta kirol klubean artean sinatzen diren hitzarmenetarako **hizkuntza klausulak proposatzea** ( aurreko atalean "1.4" puntuan jasotakoak).
2. Eskola kiroleko taldeen **hizkuntza diagnostikoa** egitea.  
Kiroletako lan mahaia proposatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, Gipuzkoa osoan lehen datu bilketa egin zuen SIADECOK 1997an ondorengo datuak ezagutzeko: kirol monitoreen hizkuntza gaitasuna, eskola umeen irakasteredua, euskararen erabilera maila

---

*- Ikastetxea, eskola kiroleko eragile guztiak elebidunak izan daitezten saiatzea eta B eta D irakastereduetako eskola umeek eskola kirola euskaraz egin dezaten ahalegintzea.*

---

**- Eskola kiroleko teknikari eta monitoreentzat udalek antolatutako prestakuntza saioetan, euskararen erabilera lehenestea.**

(batetik, kirol hezitzaile eta eskola umeen artean eta, bestetik, eskola umeen artean) eta ikastetxeetako kirol koordinatzaileen hizkuntza gaitasuna, kirol titulazioa eta ikastetxearekiko lan harremanari buruzko datuak.

Ia hamar urte pasa direnean, eskola kiroleko hizkuntza diagnostikoaren datu eguneratuak izatea komenigarria ikusten da orain.

3. Debarroan urtero Kirola Euskaraz programaren barruan sortzen dituzten kirolerako euskarazko **fitxa didaktiko berrien zabalpena sustatzea** (ikastetxeetara, udaletara,...).

Lan mahaiaren ekimenez [www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz](http://www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz) web gunea sortu zen eta bertan eskura daitezke fitxa horiek eta kirola eta euskara lotzen dituen ekimenen informazio oro.

4. **Eskola kirolean eragiteko plangintza proposamena** aurkeztea eskualdez eskualde eskola kiroleko eragileei. Eragileei egindako proposamenaren atal nagusiak ondorengoak izan ziren:

- Eskola kirolaren inguruko eskualde mailako gutxieneko egituraketa bat eratzea (eskualde mailako udal eta ikastetxeetako kirol eta euskara teknikariez osatutakoa).

- Eskola kirola, ikastetxeen hizkuntza normalkuntzarako plangintzetan txertatzea.

- Kirola, guraso elkartearen esku dagoen kasutan, eskolak bere gain hartzea.

- Hizkuntza irizpideak zehaztea: ikastetxeko kirol koordinatzaileak euskalduna izatea, eskola kiroleko entrenatzaileen hautaketan euskara kontuan hartzea, ikasle gazteenekin monitore euskaldunenak ipintzea,...

Eskola kiroleko entrenatzaile izateko ikastaroak euskaraz eskaintzea.

Monitore euskaldunak lortu ahal izateko bitartekoak ipini eta neurriak hartzea.

- Monitoreen profesionalizaziorako urratsak ematea (lan ordu gehiago, konpentsazio ekonomiko altuagoa,...).

- Kirol monitore edo hezitzaileen hizkuntza motibazioa lantzea.

- Eskola kirola euskaraz egin ahal izateko bitartekoak eskaintzea hezitzaileei nahiz hartzaileei (kirol hiztegiak, kirolean euskararen ahozko erabilerarako erregistroak, ...).

5. Eskualdeetan egindako lana ezagutu eta koordinatzeko, ekimenen informazioa eskualde guztietara zabaltzen da urtero kiroleko lan mahaiaren bitartez. Eskualdeen ekimenak hiru arlotan bildu ditzakegu: **material berria sortzeko ekimenak, kirol entrenatzaileentzako prestakuntza ikastaroak euskaraz antolatzea eta eskola kiroleko eragileen hizkuntza sentsibilizazioa.**

6. Alde batetik **eskola kirolaren profesionalizazioak** dakartzan onurak eta bestetik horretarako dauden zailtasunak aztertu eta informazioa Gipuzkoako eskualdeetara zabaltzea.

Eskola Kirolaren Programak eskola kirolaren kalitatea hobetzea du helburu, kirol prestakuntza mailan eta euskararen ezagupen nahiz erabilera mailan ere eraginez. Ohiko funtzionamendu moduarekin, ordea, eta nahiz eta udal eta ikastetxeen artean gero eta monitore euskaldunagoak eta prestatuagoak izateko elkarlanean aritu, monitore helduagoak eta eskola kiroleko heziketa lanean iraunkortasun minimo bat izango dutenak lortu arte, ezin direla eskola kirolaren helburuak guztiz lortu ikusi da.

7. Eskola kiroleko monitore edo hezitzaileen **kirol prestakuntzan** eragiteko Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren egitasmoari buruzko informazioa zabaltzea.

Eskola kirolerako onartuko den Dekretu berriarekin kirol entrenatzaile guztiek gutxieneko kirol prestakuntza bat izan beharko dute, eta internet bidez prestakuntza hori (ikastaro teorikoa eta praktikoa) jasotzeko aukera emango duen egitasmoa bideratzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzua.

### **3. ESKOLA KIROLEAN ERAGITEKO ALDERDI KLABEAK ETA ZAILTASUNAK, GIPUZKOAKO ESQUALDEEN ESPERIENTZIALTIK ABIATUTA**

#### **3.1 Eskualdeetako esperientzien aipamen labur bat**

Eskola kirolaren kalitatea hobetu eta euskara sustatzeko neurriak oro har zabalduak daude Gipuzkoako eskualdeetan, nahiz eta erritmo eta baliabideen aldetik alde nabarmenak egon batzuen eta besteen artean:

- **Bidasoaldea:** Irun eta Hondarribiko Udalek elkarlanean hasitako plan bat martxan dago Bidasoaldean, eskola kirolaren kalitatea eta euskararen erabilera bultzatzea helburu dituena. Eskualde mailan kontratatua dagoen eskola kirolerako teknikari baten bitartez, kirol monitoreei prestakuntza eskaintzen zaie ikasturte bakoitzaren hasieran eta entrenamendu saioen antolaketarako ere laguntza eskaintzen zaie ikasturte osoan zehar. Eskola kiroleko entrenatzaileen lanerako eta entrenamendu saioen planifikaziorako oso erabilgarriak diren fitxa berriak euskaraz sortu eta zabaldu ere egiten dira Bidasoaldean.
- **Buruntzaldea:** udaletako kirol eta euskara zerbitzuen arteko elkarlanarekin, eskola kirolean eragiteko lanak zabalduak daude Burun-

---

*Eskualdeetan egindako lana ezagutu eta koordinatzeko, ekimenen informazioa eskualde guztietara zabaltzen da urtero kiroleko lan mahaiaren bitartez. Eskualdeen ekimenak hiru arlotan bildu ditzakegu: material berria sortzeko ekimenak, kirol entrenatzaileentzako prestakuntza ikastaroak euskaraz antolatzea eta eskola kiroleko eragileen hizkuntza sentsibilizazioa.*

---

*Eskola Kirolaren Programak eskola kirolaren kalitatea hobetzea du helburu, kirol prestakuntza mailan eta euskararen ezagupen nahiz erabilera mailan ere eraginez. Ohiko funtzionamendu moduarekin, ordea, eta nahiz eta udal eta ikastetxeen artean gero eta monitore euskaldunagoak eta prestatuagoak izateko elkarlanean aritu, monitore helduagoak eta eskola kiroleko heziketa lanean iraunkortasun minimo bat izango dutenak lortu arte, ezin direla eskola kirolaren helburuak guztiz lortu ikusi da.*

tzaldeko herrietara: eskola kiroleko hizkuntza diagnostikorako datuak jaso, ikastetxekako analisiak egin eta urte bakoitzerako helburuak finkatu, gurasoekiko sentiberatze ekintzak bideratu, kirol monitoreen prestakuntzarako saioak antolatu eta jarraipen lana egin.

• **Debarroa:** eskualde honetan sortua eta ondoren bertatik beste eskualdeetara zabalduakoa da, hain zuzen ere, "Kirola Euskaraz" egitasmoa. Hiru arlo jorratzen dituen egitasmoa da: kirol teknikari eta monitoreen prestakuntza, kirol heziketa eta hizkuntza normalkuntzarako sentsibilizazio lana eta kirol modalitate desberdinetarako fitxa didaktikoak euskaraz sortzea. Eskola kiroleko teknikarien prestakuntzarako eta teknikariek egiten duten lanerako ere, euskaraz sortua dagoen kirol material hori laguntza handia da. Eskola kirolean, gurasoen sentsibilizatorako hainbat ekimen bultzatu dira Debarroan eta profesionalizatorako urratsak ematea zaila izanik, ikastetxeetako kirol koordinatzaileen bitartez monitoreekin zuzenean harremanetan egonez, eskola kiroleko jardueraren jarraipena nahiko gertutik egitea lortzen da.

• **Donostia:** Euskara Patronatua eta Kirol Patronatuaren arteko elkarlanari ekin eta eskola kirolean eragiteko lehen urratsak eman dira. Kirol Patronatuak eskola kiroleko teknikari-monitoreentzat antolatutako prestakuntza ikastaroetan, hizkuntza sentsibilizatorako edukiak ere ematen dira eta horretaz arduratzen da Euskara Patronatua.

• **Goierri:** batez ere udaletako euskara zerbitzuetatik ari dira bai Goierri Garaiko (Legazpi, Zumarraga eta Urretxu) eta baita Goierri Beheko (Beasain eta Ordizia) herrietan ere, eskola kirolean euskararen erabilera bultzatzeko planteamenduak egin eta aurrera eramaten: hizkuntza egoerari buruzko datuak jaso, kirol monitore euskaldunekin lan egiteko proposamenak ikastetxeetara luzatu, kirol modalitatearen araberako prestakuntza ikastaro espezifikoak antolatu,...

• **Oarsoalde:** lau herrietako udaletako kirol zerbitzu, euskara zerbitzu eta eskualdeko garapen agentziaren artean, baliabideak jarri eta eskola kirolean, kirol nahiz hizkuntzaren aldetik eragiteko koordinazio lan bat egiten da. Urte ez askotan martxan jarri eta bultzatu diren neurri eta urratsak asko izan dira: eskola kiroleko monitoreen prestakuntza, monitoreen hizkuntza sentsibilizatorako saioak, monitoreen prestakuntza maila eta hizkuntza gaitasunean aurrera egiteko modu progresiboan ikastetxeekin adostutako plangintzak, euskararen erabilera ezagutzeko datu bilketa eta neurketak eta une honetan, eskola kirolaren eskualdeko antolaketa maila eta funtzionamendua ere profesionalizatze bidean dago Oarsoaldean. Aurreko urteetan egindako lana guztiz antzua izan ez bada ere, eskola kirolerako jarriak dauden helburuak lortzeko, profesionalizazioaren bidetik jotzea erabaki da eta bide horrek erakutsitako esperientzia Aldundi-ko kiroleko lan mahaian aurkeztea oso baliagarria izan da Gipuzkoako gainerako eskualdeentzat ere.

- **Tolosaldea:** eskola kiroleko monitoreentzako prestakuntza ikastaroak antolatzen dituzte udaletako kirol zerbitzuek.
- **Urola Kosta:** eskualdeko kirol klubetan euskararen erabilera bultzatzeko “Euskara Sasoian” izeneko egitasmoa dago eta eskola kirolera begira, kirol jarduera hezitzailea sustatzeko prestakuntza orokorra eskaintzen da.

### **3.2 Faktoreak, zailtasunak eta erronkak**

Gipuzkoako eskualdeen eskarmentutik abiatuta Aldundiko kiroleko lan mahaian eskola kirolera begira azpimarratuenak izan diren faktore eta zailtasunak ondorengoak dira:

#### **1. Udaletako kirol eta euskara zerbitzuen arteko elkarlanaren garrantzia:**

Eskola kirolaren kalitatea hobetzea, udaletako kirol zerbitzuen helburua izanik, kalitatearen hobekuntzarako planteamenduen barnean hizkuntza kontuan hartu eta euskararen erabilera bultzatzeari tokia egin behar zaiola kirol zerbitzuek ikus dezaten lortu behar dute euskara zerbitzuek. Guzti horrek bide bat egitea eskatzen du eta udal bakoitzean bi zerbitzuen artean elkarlanean aritzeko oinarri sendoekin abiatzea garrantzitsua da. Zerbitzu bakoitzak ikastetxeetako pertsona diferentekin lan egitetik (kirol zerbitzuek ikastetxeko kirol koordinatzailearekin eta euskara zerbitzuek ikastetxeko hizkuntza arduradunarekin) eskola kirolean denak batera lan egitera pasatzea garrantzitsua da.

#### **2. Eskualde mailako antolaketa eta koordinazio lana, udaletako kirol eta euskara zerbitzuen artean.**

Aurretik kirolaren edo kirol ekipamenduen kudeaketarako sortuak zeuden egiturak aprobetxatu dira zenbait eskualdetan, horien bitartez udaletako kirol eta euskara zerbitzuen eskualde mailako elkarlanari forma eman eta eskualde mailako beste eragile batzuek ere inplikatzera iritsiz (garapen agentziak esaterako).

#### **3. Herri mailako elkarlana, udaletik ikastetxeei laguntzak eskaini eta ikastetxeak eskola kirolean eragin dezaten inplikatu.**

Nabarmen ikusi da eskola kiroleko prestakuntza nahiz hizkuntza normalkuntza arloko helburuak lortuko badira, ezinbestekoa dela ikastetxeekin lan eginez, ikastetxea bera motore izatera pasatzea, eskualde bakoitzean eskola kirolerako inplikatu behar diren beste eragile guztiekin batera ere lan eginez.

#### **4. Kirol hezitzaileen kirol prestakuntza, hizkuntza ezagupena eta erabilerarako ohiturak nahiz motibazioak.**

Kirol monitoreen behin behinekotasuna handia da, urte batetik bes-

---

*Eskola kirolaren kalitatea hobetu eta euskara sustatzeko neurriak oro har zabalduak daude Gipuzkoako eskualdeetan, nahiz eta erritmo eta baliabideen aldetik alde nabarmenak egon batzuen eta besteen artean.*



---

*Euskaraz sortua edo euskarara itzulia dagoen kirol arloko material idatzia gero eta gehiago da eta material horren zabalpen eta erabilera mailatan egiten da huts, askotan. Espezifikoki eskola kirolerako erabilgarria den euskarazko kirol materiala kirol entrenatzaileengana eta kirol prestakuntzan aritzen diren irakasleengana irits daitezten ahalegindu behar da.*

tera asko dira lan horretan hasten diren monitore berriak eta prestakuntzarako egiten den ahalegina ezin errentabilizatu daitekeela pentsatzea oso normala izanik ere, salto nabarmenik ematen ez den bitartean eskola kiroleko entrenatzaileentzat eskualdeetan eta kirol federazioek ere antolatzen dituzten prestakuntza ikastaroekin jarraitzea oso garrantzitsua da. Hezitzaile profesionalak izateko formazioa eta eskarmentua izango ez badute ere, behar beharrezkoa da oinarri oinarritzko kirol nahiz heziketa arau eta jokabideei buruzko prestakuntza eskaintzea.

**5. Monitore edo kirol entrenatzaileen heldutasuna eta heziketarako gaitasuna;**

gutxieneko lan baldintzak ziurtatu edo lanbidearen neurri bateko profesionalizaziora iritsi ezean, nekez lor daitezkeenak. Eskola kiroleko eragile guztiak konprometitu (udalak, ikastetxeak, gurasoak, kirol klubak, monitoreak,...) eta eskola kirolaren antolaketa nahiz egituraketa berri bat eskatzen duen erronka da.

**6. Gurasoen artean eskola kirolaren bitartez heziketa egokirako jokabideak bultzatzea eta hizkuntza sentsibilizazioa lantzea.**

Gurasoek eskola kiroleko haurren aurrean jokabide egokiak izan ditzaten, eskola kirolarekin sustatu behar diren baloreak ulertu ditzaten eta hizkuntza kontuan har dezaten, kolektibo horri begira egin beharreko informazio, formazio eta sentsibilizazio ekintzak ere garrantzitsuak dira.

**7. Kirol arlorako euskaraz sortua dagoen materialaren erabilera sustatzea.**

Euskaraz sortua edo euskarara itzulia dagoen kirol arloko material idatzia gero eta gehiago da eta material horren zabalpen eta erabilera mailatan egiten da huts, askotan. Espezifikoki eskola kirolerako erabilgarria den euskarazko kirol materiala kirol entrenatzaileengana eta kirol prestakuntzan aritzen diren irakasleengana irits daitezten ahalegindu behar da.

**8. Eskola kirolean aritzen diren kirol federazio eta kirol klubekin lan egitea.**

Herri eta eskualde mailako erakunde eta egituretatik guraso, ikastetxe, monitore eta kirol klubekin lan egitearekin batera, eskualdez gaindikoetatik (foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) kirol federazioengana iristea garrantzitsua da, bereziki eskola kirolean eragin handia duten haiengana; eskola kirolean parte hartzen duten erakunde, klub eta eragile guztien sarearekin eta sarearentzat lan eginez, eskola kirola euskalduntzeko egin beharreko bidea erosoagoa eta eragin-korragoa izango da guztientzat.■